

## Dionixi Lizeaga Agerre “Paguako Maixtra”

Emakumeari eman zaion bigarren mailako papera dela eta, neskatoek zailtasun handiak izan dituzte ikasketak egin eta hezkuntza sisteman sartzeko. Ia-ia XIX. mendearen amaierara arte emakumeek ez zuten ikasteko eskubiderik eta hasiera batean Lehen Hezkuntzako ikasketak ziren egin zitzaketan bakarrak. Hala eta guztiz ere, emakumeek ezinbesteko garrantzia izan dute hurrengo belaunaldiei ezagutzak eta balioak transmititzeko orduan eta asko eta asko izan dira irakasle lanetan aritutakoak.

Hernaniar askoren oroimenean da, adibidez, Dionixi Lizeaga Agerre “Paguako maixtra”. 1894. urtean jaioa, 40 urtez aritu zen auzoko haurrei eskolak ematen.

Hernaniko Pagoaga auzoa, baso ederrez inguratua, Hernaniko alde zaharretik 10 kilometrora dago kokatua. Auzoan ez zegoen ez elizarik, ezta eskolarik ere, eta bost kilometrora dagoen Ereñotzu bailararaino joan behar zuten haurrek ikasi ahal izateko. Negu gorrian, euripean, lokatzetan eta hotzez, oinez egin behar zituzten joan-etorriak. Baldintza horietan, asko eta asko ziren eskolara huts egiten zuten umeak.

Hamar seme-alabetan helduenetakoa, aitak ikasketak eman nahi izan zizkion Dionixi alabari. Etxean jaso zituen lehen ikasketak, zaintzen zuen neskame baten eskutik, eta ondoren Donostiara eraman zuten ikasketetan sakontzeko xedez. Ikasi ahala, ikasitakoa zabaltzeari ekin zion Dionixik eta Pagoaga auzotik irten ezinik zituen anai-arreba eta bizilagunak hartu zituen ikasle. Etxeko sukaldean abiatu zuen abentura, 1914an Pagoagako eskola sortu arte. Auzoko umez gainera, Arano herriko neska-mutilak ere izan zituen ikasle lau hamarkadetan zehar.

Eguna eta gaua ematen zuen lanean Dionixik, izan ere, egunez lanean aritu behar ziren gazteei ikasteko aukera eskaintzen zien gau-eskoletan. Iluntzeko eskola ordu horietan baina, neskatorik ez zegoela ohartu zen. Neskato eta emakumeak eguna eta gaua ematen zuten lanean eta haiek ere ikas zezaten igande eta jaiegunetan eskolak emateari ekin zion Dionixik.

Hernanin, Euskal Herrian bezala, emakumeek berebiziko garrantzia izan dute ikastolen sorreran; euskal kulturaren eta identitate nazionalen oinarritutako euskara hutsezko eskolen aitzindari asko eta asko emakumeak izan ziren. Ikastolen sorrerak eta haien geroko garapenak, 60ko eta 70eko hamarkadetan, frankismoaren aurkako herri borrokaren testuinguruan kokatu behar dira gainera. Hernaniko Urumea ikastola sortu zen lehenik eta Langile ikastola ondoren.